

Diskoak

Iker Barandiaran



Leidor Sessions
(CD + DVD).
Bide Ertzean.
Gaztelupeko Hotsak.
Iraupena: 74'22".
16,95 euro.

Hazitako taldea eta sastre onenekin borobildutako kanta

POP-ROCKAREN EREMUAN Euskal Herrian hoberen igeri egiten dakien taldeak zuzeneko lana grabatu zuen jaioterrian, Tolosan, Leidor antzokian. Taldearen gidariek beti egin duten moduan oso dotorea da emaitza: dotorea abestietan, kantu horiek denborarekin eta ezagutzarekin hartutako kolore pintzeladatan, aurkezpenean eta baita atrezzoan ere. Fran Iturbe eta Jose-rra Senperena sastreek jantzi ederrak jarri dizkiete mimoz egindako kantuei eta hazi

eta hezi egin den Imanolen ahotsak tonalitate gehiago eman dizkie. Euren ibilbideko perlak berreskuratu eta aberastu egin dituzte; baita *Graffiti* kantu ineditoa batu ere. Mugak hautsita, Euskal Herriko, Britainia Handiko eta AEBetako doinuak barneratuta dituzte. Hamasei kantu CDan; eta hamabost pieza eta taldearen gaineko elkarriketa interesgarri sorta DVDan.

www.bidertzean.com

Joni Ubeda - Bide Ertzean

«Gitarra akustikoarekin kanta batzuk prestatzean, ez genuen buruan pop-a egingo genuenik»

Horren alde hainbeste borrokatu ostean, gustura zaudete pop-aren aterkipean? Ez zaizue txikiegi gelditu?

Musikari askori nahi gabe askotan halako aterkiak jartzen dizkigute. Guk behin baino gehiagotan esan dugu estiloak baino kanta ditugula gustoso, ez gara estilo bakarrekoak. Eta, gure ibilbidean, joera desberdina goak landu izan ditugu: rock gordinagoa, brit-pop kutsua, amerikarragoa... Aterki zabala beharko genuke. Poparen aldeko borroka kontzientea egin dugun? Ekimen berrietarako intuizioaz jokatu dugula esango nuke. Deabruak Teilatuetan eten eta gitarra akustikoarekin kanta batzuk prestatu genituen, ez genuen buruan popa egingo genuenik.

Duela hamar urte Bide Ertzean sortzerakoan espero zenuten halako ibilbidea izatea?

Inola ere ez. Deabruak eten ostean, musika utzi ezin genuenez, honekin hasi ginen. Eta, berez, idazle eta poetekin izandako hartu-emanei esker

hasi zen. Inoiz kontzerturik egin gabe, Gaztelupeko Xarrak diskoa egiteko eskaintza egin zigun eta

txundituta utzi gintuen. Hala, proba moduan maxi bat egitea erabaki genuen. Imanol anaiak ez zuen bere burua *frontman* gisa ikusten, baina harrera ona izan genuen. Hala, diskoak disko egin dugu bidea. Fran Iturberi gitarra bat erosi behar genion, eta azkenean gitarra erosi ez eta taldera sartu zen; Senperena batu zitzaigun...

Nolakoa izan zen Leidorreko kontzertua?

Zuzeneko bat egitea erronka handia zen guretzat, baina gure ibilbideko kanta gaur egungo erara interpretatu nahi genituen. Erantzukizun handia genuen, nahiz eta lan handia eginda eraman. Grabatuko gurela bazekiten 700 lagun aurrean aritzea zirraragarria da, baita arriskutsua ere. Eta jendearen jakin-mina ikaragarria izan zen. Emaitza gogoangarria izan zela uste dut, bai guretzat eta bai entzule guztientzat ere. n

